



Memoria

2020

KABIA foru organismo autonomoko Gobernu Batzordeak
onartua

Donostia, 2021eko urriak 29

AURKIBIDEA

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK	1
1.1. ZERBITZUAK	1
1.2. ERABILTZAILEAK	2
2. COVID-19.....	4
2.1. PANDEMIAREN ERAGINA.....	4
2.2. ORDIZIAKO COVID ZENTROA.....	7
2.3. COVID 19 PLANA.....	7
2.4. EPAIKETAK ETA IKUSKAPENAK	9
3. BATERATZE PROZESUA ETA EGOITZA BERRIEN INTEGRAZIOA	9
4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA.....	10
4.1. GASTUAK.....	10
4.2. DIRU SARRERAK.....	11
ERANSKINA. KABIAKO COVID PLANA: HELBURUEN BETETZE MAILA.....	12

2020. urtea oso urte berezia izan zen osasun larrialdi egoera dela eta. Ez-ohiko egoera horrek KABIako jardura eta plangintza zeharo baldintzatu zituen, martxoaren erdialdetik hasita batez ere. Egoitzetan bereziki lan karga handi egon zen; pandemiak sortutako beharrei eta egoerei erantzuteko etengabeko egokitze prozesu batean murgilduta egon ziren; lehenetasuna egoiliarak babestea eta zaintzea izan zen, helburu hori lortzeko langileei babes neurri eta baliabide egokienak eta prestakuntza bereziak emanez. Une oro eskumena duten erakundeek ezarritako jarraibideak betez eta haiekin koordinatuz lan egin zen.

Egoitzen integrazioari dagokionez, urtarrilaren 1ean bi egoitza sartu ziren KABIAN (Eibar-San Andres egoitza eta Pasaia) eta uztailearen 1ean hirugarrena (Irun-Ama Xantalen). Hernaniko egoitza 2020ean sartzea aurreikusia zegoen, baina 2020. urtean bi hautaketa prozesu abian jarri zituztenez, 2021. urteko udazkenean arte ez da egoitza KABIAN sartzea aurreikusten.

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK

2020an KABIAN hiru egoitza berri sartu ziren; urtarrilaren 1ean Eibar eta Pasaia, eta uztailearen 1ean Irun. 2020an Hernanikoa sartzea aurreikusia zegoen ere bai, baina hautaketa prozesuetan murgilduta zeudenez, ezin izan zen aurreikusitako epean sartu. Horren ondorioz, 2020an KABIak hamabost egoitza kudeatu ditu ondorengo ezaugarriekin.

1.1. ZERBITZUAK

2020an KABIak ondorengo zerbitzuak kudeatu zituen:

EGOITZA	OINARRIZKO PLAZAK	UPSI PLAZAK	EGOITZAKO PLAZAK GUZTIRA	EGUNEKO ZENTROA PLAZAK	TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK PLAZAK
ANDOAIN	95	-	95	-	-
ARRASATE	104	-	104	-	-
AZKOITIA	54	14	68	20	12
BERGARA	81	18	99	-	-
EIBAR	95	-	95	-	-
ELGOIBAR	48	-	48	-	-
ERRETERIA	127	15	142	-	-
IRUN	70	-	70	15	-
LASARTE-ORIA	42	15	57	25	-
OÑATI	68	15	83	-	-
ORDIZIA	58	-	58	-	-
PASAI	40	-	40	15	-
TOLOSA	147	-	147	-	-
VILLABONA	39	-	39	4	-
ZUMAIA	52	-	52	-	-
GUZTIRA	1120	77	1197	79	12

Osasun larrialdi egoeraren ondorioz hartu beharreko neurrien artean, egoitzetan hainbat plaza bete gabe utzi behar izan ziren.

1.2. ERABILTZAILAK

KABIAko erabiltzaileen profila honakoa da: ia 88 urte dituen emakumea da, mendekotasun handia duena.

KABIAk artatzen dituen pertsonen artean %71 emakumeak dira. Erabiltzaileen batez besteko adinari dagokionez, emakumeak gizonak baino zaharragoak dira; gizonen batez besteko adina 83 urtekoa da; emakumeena, aldiz, 88 urtekoa.

Egoitza/ zerbitzua	Batezbestekoa / Adina		
	EMAKUMEA	GIZONA	Guztira
Andoain	88	86	88
Egoitza	88	86	88
Arrasate	89	83	87
Egoitza	89	83	87
Azkoitia	87	80	84
Egoitza	87	81	84
Eguneko zentroa	85	77	81
UPSI	89	79	87
Bergara	88	86	87
Egoitza	87	86	87
UPSI	88	86	88
Eibar	90	88	90
Egoitza	90	88	90
Elgoibar	88	83	86
Egoitza	88	83	86
Errenteria	88	83	86
Egoitza	88	84	87
UPSI	88	76	84
Irun	89	84	87
Egoitza	89	84	87
Eguneko zentroa	89	89	89
Lasarte	86	84	86
Egoitza	87	85	86
Eguneko zentroa	85	85	85
UPSI	87	81	86
Oñati	88	82	86
Egoitza	88	81	87
Eguneko zentroa	87	80	85
UPSI	88	86	87
Ordizia	88	84	87
Aldi baterako egonaldiak	87	86	87
Egoitza	89	81	87
Pasaia	86	81	84
Egoitza	88	79	85
Eguneko zentroa	83	85	83

Egoitza/ zerbitzua	Batezbestekoa / Adina		
	EMAKUMEA	GIZONA	Guztira
Tolosa	89	81	87
Egoitza	89	81	87
Villabona	88	84	87
Egoitza	88	84	87
Eguneko zentroa	85		85
Zumaia	88	82	87
Egoitza	88	82	87
Batazbesteko adina	88	83	87


(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Orotara KABIako zerbitzuak jasotzen dituzten erabiltzaileen batez besteko adina azken urteetan antzekoa dela ikus daiteke. Kasu guztietan emakumeak dira zaharragoak.

BATEZ BESTEKO ADINA							
2017		2018		2019		2020	
E	G	E	G	E	G	E	G
86	82	87	83	87	83	88	83

(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Menpekotasun graduaren arabera, mendekotasun larria eta handia dutenen proportzioa handiagoa dela ikus daiteke. Aurreko urteetako joera mantentzen da, nahiz eta mendekotasun handia dutenen proportzioa pixka bat jaitsi den.



2. COVID-19

Pandemiak sortutako egoeraren ondorioz, KABIA etengabe egokitze prozesu batean murgilduta egon da 2020ko martxoaren erdialdetik hasita bereziki eta larrialdi egoera horri aurre egiteko beharrezkoak izan diren baliabideak jarri behar izan ditu, Aldundiarekin elkarlanean. Horren ondorioz, 2020. urterako aurreikusita zeuden hainbat proiektu eta jarduera atzeratu edo eta baztertu egin behar izan ziren eta Covid 19ari aurre egiteko plana abian jarri behar izan zen.

2020ko martxo eta apirila bitarteko epealdia bereziki gogorra izan zen. Covid 19ko krisiarekin zerikusia zuten lehen protokoloak otsailaren 28tik aurrera lantzen hasi ziren Aldundia eta Osakidetzarekin batera, eta hortik aurrera etengabeko ikaste, egokitze eta sortze garai bat izan da: birusaren ezagutza eta eragina handitzen joan zen heinean, prozedurak, protokoloak eta jarraibideak bildu, irakurri, sortu, egokitu eta zabaldu dira. Estatuak, Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak sortutako dokumentazioa KABIAn egoerara bideratu behar izan da bateratze prozesurako baliabide garrantzitsu bat bihurtuz.

2.1. PANDEMIAREN ERAGINA

Covid 19aren krisialdiak KABIAn izan duen bilakaera eta eraginaren inguruko datu batzuk jasoko dira atal honetan. 2020an egoitzetan bi aldi nagusi bereiztu beharko lirateke: alarma egoerako garaia (martxoak 14-ekainak 21) eta hortik aurrerakoa. KABIAn kasuan, bereziki gogorra izan zen martxoak 18tik apirilak 23 bitarteko epealdia, bi mugarri horien arrazoia ondorengo delarik: martxoak 18ko gauean Tolosako lurreamendi egoitzako lehen egoiliar eta langile positiboak ezagutu ziren; apirilak 23an, aldiz, KABIAn egindako kudeaketaren aurka ELAk jarritako hirugarren eta azken epaiketa egin zen Eibarko epaitegian.

Udaren ondoren, berriro egoiliarren lehen kasu positiboak agertu ziren, kasu horiek agertu ziren egoitzetan eragina izan zuelarik.

Hurrengo datuetan, bi aldiak bereizten dira, bai egoiliarrei dagokienez eta baita langileei dagokienez ere.

EGOILIARRAK						
Egoitza	Kasu positiboak		Hildakoak		Sendatutakoak	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Martxoak 18-maiatzak 11						
Arrasate (Iturbide)	81	100	26	32	55	68
Eibar (San Andres)	34	100	9	26	25	74
Ordizia (San Jose)	54	100	25	46	29	54
Tolosa (Iurreamendi)	55	100	15	27	40	73
Guztira	224	100	75	33	149	67
Irailak 7-abenduak 16						
Andoain (San Juan Bataiatzailea)	30	100	1	3	29	97
Arrasate (Iturbide)	1	100	0	0	1	100
Bergara (Mizpirualde)	25	100	8	32	17	68
Errenteria (Jesusen Bihotza)	61	100	12	20	49	80
Guztira	117	100	21	18	96	82
Martxoak 18-abenduak 16						
Guztira	341	100	96	28	245	72

Iturria: KABIA eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politiketako Departamentua, 2020/12/31.

Lehen kasu positiboak Tolosako Iurreamendi egoitzan agertu ziren martxoaren 18an (4 kasu). Hurrengoak Eibarko San Andresen martxoak 25ean (2 kasu) izan ziren; azkenik, martxoak 27an, Arrasateko Iturbiden (kasu 1) eta Ordiziako San Josen (6 kasu) jakin ziren.

Irailan agertu ziren lehen kasuak honakoak izan ziren: Errenteriako egoitzan irailaren 7an eta Bergaran irailaren 16an.

Langileen kasuan, ondorengoak dira emandako kasu positiboak.

LANGILEAK (KABIA+Zerbitzu enpresak)			
<i>Egoitza</i>	<i>Kasu positiboak</i>		
	<i>Kopurua</i>	<i>Kabia</i>	<i>Zerbitzu enpresak</i>
Martxoak 18-maiatzak 11			
Arrasate (Iturbide)	30	4	26
Eibar (San Andres)	13	13	0
Elgoibar (San Lazaro)	2	0	2
Lasarte-Oria (Atsobakar)	3	0	3
Ordizia (San Jose)	24	4	20
Pasaia	1	0	1
Tolosa (lurreamendi)	24	6	18
Guztira	97	27	70
Irailak 7-abenduak 16			
Andoain (San Juan Bataiatzailea)	11	0	11
Arrasate (Iturbide)	8	0	8
Azkoitia (San Jose)	5	0	5
Bergara (Mizpirualde)	17	0	17
Eibar (San Andres)	6	6	0
Elgoibar (San Lazaro)	4	0	4
Errenteria (Jesusen Bihotza)	32	0	32
Irun (Ama Xantalen)	5	0	5
Lasarte-Oria (Atsobakar)	5	0	5
Oñati (San Martín)	5	0	5
Pasaia	1	0	1
Tolosa (lurreamendi)	3	0	3
Zumaia (San Juan)	1	0	1
Guztira	92	6	86
Martxoak 18-abenduak 16			
Guztira	189	33	156

Iturria: KABIA eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politiketako Departamentua, 2020/12/31.

Egoiliarrekin gertatu zen bezala, lehen kasu positiboak Tolosako lurreamendi egoitzan egon ziren, zehazki martxoaren 20an ezagutu zen informazio hori, PCR testen emaitzak jaso ziren egunean hain zuzen. Pasaia, Lasarte-Oria eta Elgoibarko egoitzen kasuan, langileen kasu positiboak egon ziren, baina egoiliarrenak aldiz ez.

2.2. ORDIZIAKO COVID ZENTROA

COVID 19ko krisiak Gipuzkoan egoitzetan diagnostikatutako positibo kasuen arreta egoitzetatik kanpo egitearen beharra ekarri zuen. Helburua egoitzetan ahal zen heinean bitzta normalizatu bat mantentzea izan da eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean Ordiziako San Jose egoitza isolamendu zentro erabilerara egokitu zen 2020ko udazkenerako.

Isolamendu zentro hau ireki aurretik KABIak 389.777 €tako inbertsioak egikaritu zituen eta langileen trebakuntza espezifikoa ondoen isolamendu zentro bezala 2020ko urriaren 14an ireki zen 58 plazekin.

Ordiziako zentroan artatutako gehiengoa Gipuzkoako egoitzetako egoiliar positiboak izan dira baina etxeetan bakarrik bizi diren adineko pertsonak edo eta tutoretzapeko apartamentuetako erabiltzaileak ere artatu dira.

2020ko urriak 14 eta 2021eko martxoak 15 bitartean 195 pertsona artatu dira, batezbesteko adina 83 urte izan da eta erabiltzaileen batezbesteko egonaldia 17 egunekoa izan da. Artatutakoen %81 emakumezkoak izan dira eta %19 gizonezkoak.

2021eko urtariletik aurrera erabiltzaileen kopurua nabarmen jaitsi da egoitzetako txertaketa prozesuarekin bat eginez.



2.3. COVID 19 PLANA

KABIako Zerbitzu Zentraletan COVID 19 plana egin zen Aldundian egindakoan oinarrituta eta Zuzendaritza Taldean onartu zen apirilak 7ko datarekin. Plan horretako oinarritzko tresna egoitzetako kontingentzia planak izan ziren.

2.3.1. Prebentzio eta kontingentzia planak

a) Egoitzak

Lehenengo plana Eibarko San Andres egoitzakoa izan zen, apirilaren 4ean prestatu zena. Egun horretan KABIako gerentea, Asistentzia Arloko arduraduna, egoitzaburua, bi gainbegirale eta eta Aita Menniko hiru aholkulari elkartu ziren egoitzan, egoitzaren egoera aztertzeko, zentroa berrantolatzeko eta egokitzeko. Egun horretan zehar egindako lanaren emaitza izan zen KABIako egoitza bateko lehen kontingentzia plana. Bertan sortutako erudian oinarrituta, gainontzeko egoitzetako planak bideratu ziren. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak txantilo gisa erabili zuen lurraldeko egoitza guztietara bidaltzeko. Kontingentzia planak apirilaren hasieratik aurrera onartuak izan arren, aurretik egoitzetan hainbat neurri ezarrita zeuden. Beraz, aipatutako plana egoitzetan hartutako neurriak ordenatu, egokitu, bateratu eta jarraipena egiteko oinarritzko tresna izan dira.

PREBENTZIOAREN DESKONPENSATIA

COVID-19rako kudeaketa egiteko behar diren tresnak eta baliabideak zehaztu eta aztertzea. Horretarako, behar diren tresnak eta baliabideak zehaztu eta aztertzea. Horretarako, behar diren tresnak eta baliabideak zehaztu eta aztertzea.

KONTINGENTZIA PLANAREN BERRANTOLAKETA

COVID-19aren egoera arazoak direnean, egoitzaren egoera aztertzea eta berrantolaketaren behar diren tresnak eta baliabideak zehaztu eta aztertzea. Horretarako, behar diren tresnak eta baliabideak zehaztu eta aztertzea.

Egoitza	Asistentzia	Asistentzia
1. Egoitza		
2. Egoitza		
3. Egoitza		

Alarma egoera amaitu, eta "normaltasun berrira" egokitu beharrak egoitzak antolatzea ekarri zuen, senideen bisitak jasotzeko eta egoiliarren irteerak bermatzeko. Covid 19aren kontrako segurtasun neurriek eskatzen zutena betetze aldera, egoitzetan hainbat egokitze eta, kasuan kasu, inbertsioak egin behar izan ziren. Gainera, unean uneko egoitzako, udalerriko edo eskualdeko egoera epidemiologikoaren arabera, bisitak eta irteerak murriztu edo eteten behar izan dira eta horrek egoera zailak egotea sorrarazi du.

445/2020 Foru Aginduaren bitartez, ordura arte hainbat komunikazio, jarraibide eta gomendiotan jasotako arloak bateratu ziren, egoitzaren antolaketan eragin zuzena duen arlo berri bat arautzen zelarik: sektorizazioa; zehazki, planetan honakoa jaso behar dela arautzen zen: "Iana antolatzeko sektorizazioa,

profesionalen eta erabiltzaileen arteko harreman gurutzatuen kopurua ahalik eta txikiena izan dadin". Ordura arte gomendagarri gisa antzeman zen langileen sektorizazioa, Foru aginduaren ondorioz, betebeharrak bihurtu zen.

b) Zerbitzu Zentralak

COVID-19ari aurre egiteko Zerbitzu Zentraletan egindako kontingentzia plana, maiatzak 5ean krisi batzordean onartu zen. Bertan jaso ziren ohiko jarduerara mailaka itzultzeko neurriak, alegia: telelana utzi eta Miramonera lanera itzultzeko neurriak bereziki.

2.3.1. Langileen kudeaketa

Pandemiaren une larrietan, langileen kudeaketak lan karga handi bat ekarri zuen egunerokotasunean: lan prebentzio arloa egokitu eta bultzatu beharra, langileen bajak betetzeko zailtasunei aurre egitea, egoera berriak eskatzen zuen langileen prestakuntza beharrak asetzeko baliabideak bilatu eta ezartzea, NBE hornidura beharrak asetzea, sektorizazioa, eta oro har, krisi egoerari aurre egiteko onartutako arau, prozedura eta jarraibide berrietara eta horien aldaketetara egokitu behar izatea egoitzetan zeuden beharrei aurre egin eta KABIaren ardurapean dauden adineko pertsonen kalitatezko zaintza eta arreta emateko.

3.3. Zerbitzuak egokitzea: Kontratazioa eta kudeaketa ekonomikoa

Kontratazio arloan hartutako neurri garrantzitsuenetakoa Ordiziako egoitzaren lanen ondorioz egindako kontratuaren etetea izan da. Bestetik, hainbat larrialdi kontratu egin behar izan dira, besteak beste: NBE hornidura bermatzeko, epaketetako defentsarako zerbitzuak eta aholkularitza jasotzeko eta osasun krisiak egoitzetan eskatzen zituen asistentzia zerbitzuak gehitzeko.

Eguneko zentroak ixtearen ondorioz, bertako langileak egoitzetan lan egiteko aukera egon zen eta oso lagungarria izan zen pandemiako unerik gogorrenetan.

3.4. Komunikazioa eta koordinazioa

Etengabeko komunikazioa eta koordinazioa egon da KABIako Zerbitzu Zentraletako langileen, egoitzaburuen eta zerbitzu enpresetako solaskideen artean. Halaber, KABIak zerbitzu enpresetako ordezkariekin partekatu ditu berriaz sortutako dokumentu eta material guztiak, berrerabiltzeko aukera izan dezaten.

Krisi sanitarioak bereziki nabarmendu du lan prebentzio arloko jardueren koordinazioaren betebeharra eta garrantzia; egoitza berean zerbitzua ematen duten enprekin koordinazio egoki bat egitea. Arlo horri dagokionez, bereziki zaila izan da prebentzio zerbitzuekin gaia bideratzea.

KABIako lau egoitzetan kasu positiboak egoteak interes handia piztu du komunikabideen aldetik. Egoera oso txarra zenean presio handia izan zen egoitzetako ordezkarietatik. Bestalde, adinekoen egoitzak larrialdi egoeraren une gogorrenetan eta egoera hobetzen zihoan garaian, egoitzetako ordezkariak, egoitzaburuek gehienbat, komunikabideetan parte hartu dute. Horrek egoitzetan egindako praktika onak zabaltzeko balio izan du ere bai.

Kanpotik egondako presio horri aurre egiteko, ezinbestekoa izan da egoitzetan gardentasunari eman zaion garrantzia. Honetan berebiziko garrantzia izan du egoiliar eta senideen arteko komunikazioa bermatzeko ezarritako prozedurak, bideo deiek eta eguneroko komunikazio mezuek. Positibo emandako egoiliarren kasuan egunero erreferentziazko senideari egoiliarren egoeraren berri ematen zaio, eta horrek senideen aldetik lasaitasuna eta konfiantza eragin du.

2.4. EPAIKETAK ETA IKUSKAPENAK

a) ELAko demandak eta lan ikuskapenak

ELA sindikatuak lan arloko epaitegietan 3 demanda jarri zituen KABIA foru organismoaren eta zerbitzu enpresen (Aita Menni, Eulen eta Zu eta Biok) kontra, Oinarrizko eskubideak babesteko eskaera (osasunerako, bizitzarako eta osotasun fisikorako eskubidea) eginez, Arrasateko, Ordiziako eta Tolosako egoitzei zegokienean. Epaiketak Donostiako Lan Epaitegietan eta Eibarkoan egin ziren: apirilaren 20an (Tolosako egoitza) eta 21ean (Ordiziako egoitza) Donostiako epaitegian eta apirilak 23an (Arrasateko egoitza) Eibarren. Sententziak KABIAren aldekoak izan ziren.

Bestetik, COVID 19aren larrialdia dela eta, Tolosa eta Ordiziako egoitzetan bi lan ikuskapen egon ziren.

b) Eibarko egoitzako sektorizazioarekin zerikusia duten epaiketak

Eibarko egoitzako komiteko hiru sindikatuak (CCOO, ELA eta UGT) bi salaketa jarri zituzten Eibarko Lan Arloko 1. zenbakiko epaitegian. Bi epaiketako hitzorduak irailak 11n izan ziren. Sententziak KABIAren aldekoak izan ziren.

3. BATERATZE PROZESUA ETA EGOITZA BERRIEN INTEGRAZIOA

Pandemiaren ondorioz, KABIAn plan estrategikoak eta urteko kudeaketa planean aurreikusita zeuden hainbat proiektu atzeratu edo egokitu behar izan ziren. Hala era, krisi sanitarioa hasi aurretik, urtarrilaren 1etik, bi egoitza (Eibar San Andres eta Pasaiko Zaharren egoitza) integratu ziren, eta urte erdian, uztailek 1ean, beste egoitza bat (Irungo Ama Xantalen). Hernaniko Santa María Magdalena egoitza ez zen aurreikusitako epean integratu, bi hautaketa prozesutan murgilduta zeudelako.

Integrazio berri horiek karga gehigarri bat ekarri zuten, eta pandemia baten erdian egoteak, gainera, zailtasunak areagotu egin zituen. Integrazio hori ahalbidetzeko, KABIAn ordura arte ezarritako prozedurak abian jarri zituen, besteak beste: komunikazio planean, langileen kudeaketa arloan, sistema informatikoetan, kontabilitatean, etab.

Pandemiako krisi bera, bateratze prozesuan lagungarri izan zen aldi berean, nahiz eta, esan bezala, ezarritako aurreikuspenak ezin izan diren nahi bezala bete. Krisi sanitarioak bateratze prozesuan areagotzea ahalbidetu du; lan karga handia sortu arren, prozedurak eta irizpideak bateratu dira hainbat arlotan: prebentzio eta kontingentzia planak, NBE hornidura, lan prebentzioa, ... etab.

Hizkuntza berdintasunari dagokionez, KABIAn euskara sustatzeagatik saria jaso zuen KABIA erakunde autonomoko gerenteak. Hizkelan jardunaldian eman zioten saria eta lanbide heziketa eta lan mundua euskalduntzearen aldeko lana saritzen dute jardunaldi horretan.



4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA

4.1. GASTUAK

KABIA foru organismo autonomoan, 2020. urtean zehar egindako gastuen banaketa beheko taulan ikus daiteke.

Kapitulua	Hasierako aurr.	Behin bet. aurr.	Onart. Oblig.	
			€	%
1. Langileria gastuak	14.734.486	14.734.486	10.590.728	71,9
2. Ohiko gastuak	37.788.872	37.788.872	37.046.307	98,0
6. Inbertsio errealak	1.255.000	1.255.000	687.681	54,8
Gastuak Guztira	53.778.358	53.778.358	48.324.716	89,9

Aurrekontuaren likidazioari dagokionez, aurrekontuaren %89,9an likidatu da, aurreko urteetan baino proportzio handiagoa. Bigarren kapituluan izan da gastuaren proportziorik handiena, bereziki egoitzetako zerbitzu eta hornidura kontratuetako gastu finkoen ondorioz sortutakoa baita.

Seigarren kapituluan egindako gastua aurrekontuaren %54,8 izan da, proportzioan kapitulu guztien artetik txikiena. Inbertsioak ez egitearen arrazoia ez da izan beharrak ez egotea. Alderantziz, beharrak oso handiak dira, egoitzen egoera dela eta. Zailtasunik nagusiena honakoa da: inbertsio horiei aurre egiteko egin beharreko tramitazioa eta kontratazioa bideratzeko gaitasuna ez izatea KABIako Zerbitzu Zentraletan dagoen lan karga dela eta. Covid 19ak sortutako ez-ohiko egoerak zailtasun gehigarriak ekarri ditu. Gainera, egoitzetan egindako hainbat inbertsio larrialdi egoera horri aurre egitera zuzendu dira.

Egoitzetako inbertsioei dagokienez, hurrengo taulan mota bakoitzean egindakoak zehaztuta jasotzen dira.

Altzarietan egindako hainbat inbertsio Covid 19ak eragindako egoerari aurre egitera zuzendu dira, bai egoitzetan baita Zerbitzu Zentraletan ere. Zerbitzu Zentralen kasuan, sortutako lanpostu berrien ekipamendurako erabili dira gehienbat, informatikako ekipamenduaren hornidurarekin batera.

Irungo egoitzaren kasuan, 2020ko uztailaren 1ean sartu zen KABIAra eta horren ondorioz informatikako ekipamenduak berritu behar izan ziren.

Inbertsioak: ibilgetu materiala	Makineria eta Tresneria	Altzariak	Informatikarako ekipamenduak	Eraikuntzak	Guztira
Zerbitzu Zentralak	3.141,88	22.529,96	13.538,33	-	39.210,17
Andoain	35.839,18	7.335,46	-	-	43.174,64
Arrasate	16.062,99	822,80	-	-	16.885,79
Azkoitia	3.678,24	694,23	-	-	4.372,47
Bergara	7.093,26	10.394,98	-	-	17.488,24
Eibar	12.697,62	4.716,45	-	2.420,00	19.834,07
Elgoibar	2.603,70	6.187,70	-	-	8.791,40
Errenteria	8.089,15	411,40	-	-	8.500,55
Irun	-	1.641,49	10.534,26	-	12.175,75
Lasarte	4.704,26	-	-	-	4.704,26
Oñati	28.202,42	-	-	5.265,53	33.467,95
Ordizia	21.946,69	34.762,89	1.375,77	246.253,73	304.339,08
Pasaia	9.080,94	2.831,40	-	-	11.912,34
Tolosa	5.898,37	1.207,80	-	5.407,49	12.513,66
Villabona	6.130,12	7.114,80	-	-	13.244,92
Zumaia	2.356,05	650,35	-	-	3.006,40
Guztira / Total	167.524,87	101.301,71	25.448,36	259.346,75	553.621,69

Azkenik, Ordiziako egoitzan egin zen inbertsioa aipatu behar da: COVID-19aren pandemiari aurre egiteko, Ordiziako egoitzaren eraikinak zituen gabeziak, egoeraren larria eta koronabirusaren bilakaerari buruzko ziurgabetasuna kontuan izanik, Ordiziako egoitzan igogailu bat instalatu eta aldagelak moldatzeko lanak egin ziren.

4.2. DIRU SARRERAK

KABIAk, 2020. urtean izandako diru sarrerak beheko taulan jasotzen dira:

Kapitulua	Hasierako aurr.	Behin bet. aurr.	Onart. Eskubid. Garbiak	
			€	%
3. Tasak eta bestelakoak	18.531.450	18.531.450	15.498.674	83,6
4. Transf. arruntak	33.991.908	33.991.908	29.843.389	87,8
7. Kapital-transferentziak	1.255.000	1.255.000	703.833	56,1
Sarrerak Guztira	53.778.358	53.778.358	46.045.897	85,6

Izandako gastuekin alderatuta, 2020ean defizita handia izan da diru sarrerak aurreikusitakoa baina txikiagoak izan baitira.

ERANSKINA. KABIako COVID PLANA: HELBURUEN BETETZE MAILA







%100-90 beteta












%90 baino gutxiago



Bete gabe

ILDOA/ EKINTZA	ARDURADUNA	DOKUMENTUA	ADIERAZLEA	Helburua	Betetzea
1) Egoitzen berrantolaketa larrialdi egoerara egokitzeko: kontingentzia planak					
1. Egoitzako larrialdi batzordea osatzea. 2. Egoitza bakoitzaren berrantolaketa, egoiliar kohorteen arabera gune desberdinak bereiztuz 3. Langileen berrantolaketa 4. Garbiketa eta ikuztegia. 5. Hondakinen kudeaketa. 6. Sukaldea eta elikagaiak. 7. Hildako positibo/susmagarrien kudeaketa 8. Desinfekzio orokorra. 9. Egoiliarren lekualdaketak	Egoitzaburua	Egoitza bakoitzaren kontingentzia plana	Kontingentzia plana duten egoitza kopurua	Kudeaketa zuzeneko egoitza guztiak KABIako dokumentuan jasotzea	
		Egoiliarrei egindako PCRen jarraipena	Egoiliarrei egindako PRC test % egoitzak	%100	
2) Langileak					
10. Babes materialak (EPI) lortzeko koordinazioa.	Asistentzia arloa	NBEen kontrola egiteko txantiloia	Egunean eguneko NBEen inbentarioa jaso eta eskaerak bideratu eta kudeatu	Egoitza guztietako txantiloia beteta jaso egunero (martxoa-maiatza) 15ean behin (ekinetik aurrera)	
11. PCR testak eta bajak kudeatzea.	Langileen kudeaketa arloa	Prozedura	KABIako langileei egindako PCR test % egoitzak	Ahal diren test guztiak egitea %100	

ILDOA/ EKINTZA	ARDURADUNA	DOKUMENTUA	ADIERAZLEA	Helburua	Betetzea
12. Prestakuntza.	Langileen kudeaketa arloa	Langileei bidalitako komunikazioa Jasotako bestelako dokumentazioa (Matia, Aita Menni, GFA...)	Bideratutako prestakuntza ekintza kopurua	2	
13. Telelana.	Antolakuntza, berrikuntza eta IKT arloa	Zerbitzu Zentraletan hartutako neurriak Egoitzetan telelana egiteko aukera bermatzea	Telelana egiteko aukera duten ordenagailu kopurua	KABIako ordenagailuen %100 telelana egiteko aukera izatea	
14. Kontratazioak eta langileen jardunaldi/egutegi berrantolaketak	Langileen kudeaketa arloa	Egutegiak egokitzea Kontratazio eta izendapen berriak	Zerbitzua emateko beharrezkoak diren erizain eta zaintzaileak izatea	Gutxienez zerbitzu minimoak bermatzea	
3) Zerbitzuak egokitzea: Kontratazioa eta kudeaketa ekonomikoa					
15. Larrialdi egoerari aurre egiteko kontratazio berriak, aldaketak eta, hala badagokio, eteteak egitea.	Arlo Juridikoa eta Kontratazioa	Kontratazio berriak eta egokituak	Larrialdi egoerak aurrekontuan izan duen eragina (% aurrekontuarekiko gastu gehigarria)	Larrialdi egoerak eskatzen duena ezartzea aurrekontuko gastua gainditu gabe	
16. Larrialdi egoerak espedienteetan duen eragina kudeatzea (administrazio epeak etetea, ...).	Arlo Juridikoa eta Kontratazioa	Beharrezkoak diren espedienteak kudeatu			
17. Eguneko zentroko langileak egoitzetan lan egitea bermatzea	Egoitzaburuak	Txantiloia: eguneko zentroko langileek emandako zerbitzua			
18. Erabiltzaileen ekarpenak: egoitzak eta eguneko zentroak	Ekonomia Arloa	Larrialdi egoeraren ondorioz, Departamentuak hartutako erabakiak jasotzen dituen dokumentazioa bildu			
4) Komunikazioa eta koordinazioa					

ILDOA/ EKINTZA	ARDURADUNA	DOKUMENTUA	ADIERAZLEA	Helburua	Betetzea
19. Egoitzaburuak	Gerentea eta Asistentzia arloa	Koordinaziorako beharrezkoa den dokumentazioa jaso eta helarazi			
20. Langileak eta sindikatuak	Gerentea eta Langileen kudeaketa arloa	Kontsulten erantzunak Komunikaziorako idatziak	KABIako Zerbitzu Zentralen arduragatik komunikazio/ koordinazio arazorik ez egotea	Komunikazio/ koordinazio ezagatik kexarik ez egotea	
21. GFA. Gizarte Politiketako Departamentua	Gerentea eta Asistentzia arloa	Koordinaziorako beharrezkoa den dokumentazioa jaso eta helarazi			
22. Osakidetza eta Osasun Saila	Asistentzia arloa	EPlen hornidurarekin zerikusia duten eskaerak			
23. Zerbitzu enpresak	Gerentea eta Asistentzia arloa	-Koordinaziorako beharrezkoa den dokumentazioa jaso eta helarazi -Kudeaketa integraleko egoitzetako kontingentzia planak bildu enpresa bakoitzak egindakoaren arabera			
24. Zerbitzu Zentralak	Gerentea	Koordinaziorako beharrezkoa den dokumentazioa jaso eta helarazi			
25. Erabiltzaile eta senideen arteko komunikazioa bermatzea	Egoitzaburuak	Prozedura	Prozeduran zehazten diren maiztasunak betetzea	Gutxieneko komunikazio ekintzak betetzea	
5) Prozedurak eta irizpide bateratuak					
26. Prozedura, protokolo eta irizpide orokorrak adostu	Gerenteak	Prozedura orokorrak	Covid 19arekin zerikusia duten prozedurak guztiak zehaztea	Protokoloek zehazten dituzten prozeduren %100 egina	
27. Prozedura, protokolo eta irizpide orokorrak egoitza bakoitzaren errealitatera egokitu	Egoitzaburuak	Prozedura orokorrak egoitzetara egokituak	Prozedura orokorrak kudeaketa zuzeneko egoitzetan ezartzea (%100)	Protokoloek zehazten dituzten prozeduren %100 egoitzetako	

ILDOA/ EKINTZA	ARDURADUNA	DOKUMENTUA	ADIERAZLEA	Helburua	Betetzea
				errealitatera egokituak egotea	